

Liburutegiak gonbidatzen zaitu

Ķatoz, emadazu esku hori.

Nahi baduzu, zurekin ekar dezakezu

zure sonbreiru beltza,

zure bufanda urdina,

edo zure pailazo-sudur gorria.

Ītzal ezazu mugikorra.

Bila ezazu zure *abriteportas* berezia,

bestela, ez da atea irekiko.

Egin ezazu zurrut isiltasunaren edalontzitik.

Ķarri edo kendu betaurrekoak

Ķarri edo kendu umorea.

Ķen ezazu gainetik egun aspergarrietako hautsa.

Īta etor zaitez nirekin.

Ītsedena hartu behar duzu hainbeste hotsetatik.

Barnekoetatik eta kanpokoetatik.

Īzan daitezkeenak eta ez daitezkeenak dastatzeko be-
harra duzu.

Begiratzea, zeure baitatik irteteko.

Īntzutea, zeure baitara sartzeko.

Ausartzea, irribarre egitea, txunditurik gelditzea,
beldurtzea, ondoren lasaitzeko.

Bidean galtzea zeure burua aurkitzeko,

sentitzen duzunari hitzak jartzeko,

paperezko pistetan irristan ibiltzeko,

apaletan barrena surfean aritzeko,

datu-pantailetan usnan ibiltzeko...

irudien eta hitzen musuak behar dituzu.

Ītitz egingo dizute, hitz egin dezazun.

Dibertitu egingo zaituzte, besteak diberti ditzazun.

Ķontsolatu egingo zaituzte, besteak kontsola ditzazun.


Īluratu egingo zaituzte, besteak lilura ditzazun.

Nora goazen?

Ez al duzu asmatu?

ĪBURUTEĶIRA.

Noski!



Mariasun Landa

Haur eta Ķazte Literaturako Sari Nazionala